

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ASPARRENEKO UDALA

#### Araiako 2 poligonoko 1666 lurzatiaren zuzeneko eta aldez aurretiko okupazioa

Asparreneko Udaltzakoak, 2021eko urriaren 7ko ohiko bilkuran, hauek erabaki zituen:

1. Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 188. artikuluan ezarritakoaren babesean eta udal arkitectoak bere txostenean azaldutako arrazoiengatik, Onestea Araiako 2 poligonoko 1666 lurzatiaren 615,67 m<sup>2</sup>ren zuzeneko eta aldez aurretiko okupazioa. Azalera hori Santsaerreka kaleko urbanizazioa eraberritzeko obrak egiteko behar den zuzeneko okupazioaren eraginpean dago.

2. Ezartzea eta aitortzea okupazio xede diren lurzatiaren hasierako hirigintza eraikigarritasun gordina, eremuaren hirigintza kudeaketaren prozeduran parte hartzeko, legez egoki diren hirigintzako karga eta lagapenak ordaindu eta gero.

Hona hemen okupatuko diren azaleretako hirigintza eraikigarritasun gordina eta espedientean jasotzen diren gainerako datuak:

Finka zk.a	1
Poligonoa	2
Lurzatia	1666
Titularra	Carlos Ajuria Itarteren oinordekoak
IFZ/NAN	00349494
Zerga egoitza	Baiezatu beharrekoa
UE-2ren azalera	16.941,00
Azalera guztira, salbu eta eraikigarritasunik sortzen ez duen bidea	16.000,00
Eraikigarritasuna, gehienez (0,55 m <sup>2</sup> /m <sup>2</sup> )	8.800,00
Gehieneko etxebizitza kopurua	69,00
Eragindako azalera	615,67
Behin-behineko partaidetza, ehuneko	ehuneko 3,847937
Esleitutako behin-behineko eraikigarritasuna, metro koadrotan	338,6185
Esleitutako behin-behineko etxebizitza kopurua	2,6550

Hori guztia eraikigarritasun haztatuaren ehuneko 15eko doako lagapena kuantifikatu gabe (egikaritze eremuko urbanizazio kargen liburua), hirigintza ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetza gauzatzeko, EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 27. artikulua arabera; izan ere, okupazio zuzenak eragindako jabeek bere aprobeitxamendu eskubideak bere horretan mantentzen dituzte; beraz, une honetan ez da egokia lagapen hori kuantifikatzea.

3. Erabaki hau Asparreneko udaletxeko iragarki taulan eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

4. Erabaki hau banan-banan jakinaraztea espedienteko zati diren pertsoneri eta eskatzea okupatuko diren zatien jabetza tituluak aurkezteko, bai eta espedientearen xede den zatien gaineko eskubideak dituzten hirugarrenen berri emateko datuak eta dokumentuak ere.

5. Erabaki hau Fiskaltzari ere jakinaraztea, udal honek ezagutzen eta ez dituen interes legitimodun hirugarrenen eskubideak aldeztuz.

6. Gasteizko 1 zenbakiko jabetza erregistroari erregistro ziurtagiria eskatzea.

7. Alkate-lehendakari jaunari eskumena ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpenak eman, egikaritze jardunak egin eta agiria sinatzeko.

8. Behin erabaki honetan azaldutako zuzeneko, aurretiazko eta nahitaezko okupazioa eginda, horren ondorioz lortutako lursailak udalaren lurzoru ondarean sartuko dira, halaxe ezartzen baitu ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 113. artikuluko 2. apartatuaren b letran.

9. Ebazpen honen aurreko ataletan bildutako erabakien aurka alegazioak aurkeztu ahalko dira hamar egun balioduneko epean. Epe horren barruan, espedientea ikusgai egongo da entzunaldia eskatu eta haiek ikusteko. Epea bukatzen denean eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, egoki den behin betiko ebazpena emango da. Ezarritako epearen barruan alegaziorik aurkezten ez bada, ebazpen hau behin betikotzat joko da bere baldintza eta ondorio guztiekin. Dena den, berraztertze errekurtsoa eta administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko dira horren kontra. Jakinarazpenean errekurtsoen araubidea adieraziko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin bat etorriz.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2021eko urriaren 14a

*Alkatea*

*CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ*